



2010ko otsailaren 1ean.

Euskaltzale hori,

Dakizunez, 2005 urtean Kontseiluak udalen Hizkuntza-politikaren inguruko lan-ildo berezitu bat abiatu zuen. Egitasmo honen oinarria hizkuntza-politiken ebaluazioa dugu eta horren bitartez udal administrazioen lanean eragin nahi du Kontseiluak, euskararen normalizazioaren bidean ahalik eta pausorik eraginkorrenak eman daitezen. Hortaz, lan-ildo honek hizkuntza-politiken **neurketa** du abiapuntua, ondoren politika horietan **aldaketa positiboak lortzeko dinamika bat sortzeko helburuarekin**. Alegia, tokiko euskalgintzarentzat hizkuntza politikaren alorrean eragin ahal izateko tresna duzue aipatu neurketa.

Ebaluazioari dagokionez, azterketa hau egiteko metodologikoki zorrotz diseinatutako ebaluazio tresna sortu du Kontseiluak. Ahalik eta azterketa egokiena eta adostuena izan zedin, ehunka laguni ekarpenak egiteko aukera eman zaie. Adu askoren ekarpenak jaso ditugu: sozio-linguistenak, udaletako euskara teknikarientan eta beste administrazio batzuetako teknikarientan, besteak beste.

Lehenengo neurketa 2006 eta 2008 urteen artean burutu zen. Hasierako fasean 66 udalerriren neurketa egin zen; ondoren ebaluatutako herri kopurua handitu egin zen eta orotara neurketa 100 udalerrri baino gehiagotan gauzatu zen. Honela 2.000.000 biztanlerengan eragina duten hizkuntza-politiken azterketa egin zen. Herri hauek, hemendik aurrera, neurketaren langaia izango dira eta aurrerantzean udal legealdi bakoitzaren bukaeran ebaluatuko dira, lau urtean behin, alegia.

Bada, 2010ean aurretik ebaluatutako herri guztietan **bigarren neurketa** egingo du Kontseiluak eta horrekin lehenengo neurketaren emaitzarekin alderatzeko aukera izango dugu. Herrietan gauzatzen den informazio-bilketa horri esker Kontseiluak irakurketa politikoa egin eta udalerrien hizkuntza-politikan eragiteko tresnak eskaintzeko aukera izango du.

Hortaz, herrietako euskaltzale prestuengana jotzen dugu bigarrenagoz, ebaluazioa egiteko ezinbesteko zaizkigun datuen bilketan parte hartu eta Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko.

Honen guztiaren inguruan informazio xehegoa eman eta datu bilketaren inguruan solas egiteko, epe laburrean Kontseiluko teknikariak zurekin harremanetan jarriko dira.

Zinez sinetsiak gaude azterketa hau tresna garrantzitsua izango dela udalen hizkuntza politika hobetzeko. Elkarrekin urrats garrantzitsua emango dugulakoan nago.

Aukera honetaz baliatu nahi dut zu agurtzeko. Aldez aurretik, mila esker zure laguntzarengatik.

Xabier Mendiguren Berezia
Kontseiluko idazkari nagusia